

ARTE HEZKUNTZA

2. ZIKLORAKO EBALUAZIO ADIERAZLEAK

1. Ekoizpen bisual eta musikalen alderdi agerikoak, sozialak, kulturalak eta bestelakoak identifikatzea eta horiek kultura-talde edo une historiko jakinetako adierazpen moduan ulertzea.

1. Testuinguru askotako obren ezaugarri bereizgarriak hautematen eta deskribatzen ditu.
2. Obra bisual eta musikalen sorrera-baldintzen gaineko galderak egiten ditu.
3. Arte eta musika gaietan emakumeen ekoizpena urria izatearen arrazoiak ematen ditu.
4. Beste testuinguru historiko eta kultural batzuetan nola sortzen den eta nola lan egiten den jakin nahi izaten du.
5. Harrera ona egiten die beste kultura batzuetako ekoizpen bisual eta musikalei.
6. Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
7. Planteamendu artistikoei buruzko iritziak adierazten eta trukutzen ditu.

2. Bere ekoizpen bisual eta musikaletan unean-unean dituen premia espresibo eta komunikatiboetarako egokiak diren teknikak, baliabideak eta konbentzioak erabiltzen jakitea eta txukun-txukun argudiatzea bere hautuak.

1. Proposatutako komunikazio- edo adierazpen-xederako egokiak diren euskarri, prozedura eta teknikak erabiltzen ditu.
2. Egiten ari den proiektuaren xedeari lotuta erabiltzen ditu hizkuntza plastiko, bisual eta musikalen baliabideak.
3. Musika sortu eta interpretatzean, musika-notazioaren oinarriko elementuak erabiltzen ditu erritmo- eta melodia-eskema xumeak irakurtzeko.
4. Lantzen ari den proiektuari erreparatuta, ikus-entzunezko bitartekoak eta bitarteko teknologikoak erabiltzen ditu.
5. Kalitatezko interpretazioak egiten saiatzen da musika egin, ahotsa eta musika-tresnak erabili eta gorputz-adierazpena lantzean.
6. Geometriaren baliabideak erabiltzen ditu espazioaren, objektuen eta bestelako

elementuen irudikatze-premiekin
dakartzaten arazoei irtenbidea emateko.

3. Landu beharreko proiektuaz gogoeta egiteko gai izatea eta beraren eta talde osoaren interesak kontuan hartzea zereginak antolatzean.

1. Gogoan du zer lan egin behar duen eta lan hori nola egin hausnartzen du.
2. Akatsak hautemanaz gero, prozesuak berrabiarazi edo berrantolatzen ditu.
3. Hainbat iturritan bilatzen ditu lan egiteko behar dituen baliabideak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
4. Egoki antolatzen eta justifikatzen ditu bere proiektuen emaitzak.

4. Lanaren plangintza egitean, proposamen zehatz batean oinarrituta eta arazoituta ezartzea haren faseak.

1. Ondo pentsatutako proiektu baten barnean egiten ditu lanak.
2. Egiten dituen akatsak onartzen ditu eta haiek zuzentzen saiatzen da.
3. Ordena bati jarraitzen dio garapen artistikoan.
4. Ikasteko karpetan antolatzen ditu osatzen dituen prozesuak.

5. Jarduera artistikoen bidezko adierazpen- eta komunikazio-aukerak balioestea, haiek ongizaterako eta hazkuntza pertsonalerako bitartekotzat hartuta.

1. Jarduera artistikoak egitean, konfiantza erakusten du bere ahalmenean.
2. Lan gero eta hobeagoak egiten saiatzen da.
3. Modu kontzientean eta intentziaz erabiltzen ditu baliabide plastiko, bisual eta musikalak, mezu propioak osatzeko.
4. Badaki zer-nolako garrantzia duten konstantziak eta prozesuen errepikapenak, kalitatezko lan artistikoak egiteko.

6. Ikuspegi kritikoz ulertzea artelanen ekoizpenean zer-nolako garrantzi eta eragin itzela duten faktore sozialek (botere- eta genero-harremanek, ideologiek...).

1. Obren sorrerako baldintzen eta testuinguruen gaineko informazioa bilatzen eta antolatzen du.
2. Obrak zer gizarte motatan sortu diren jakiteko eta obrek gizarte horietan duten egitekoaren berri izateko jakin-mina du.
3. Arte eta musika gaietan emakumeen ekoizpena urria izatearen arazoak ematen ditu.

4. Obretan ageri diren gizarte-arazoei buruzko galdera edo itaunak egiten ditu.
5. Ikuspegi kritikoz balioesten ditu zenbait irudi- eta soinu-produkzioek pertsonengan duten eragina.